

# Informazioaren Gizartea eta enpresak

Emaitzen aurrerapena

## La Sociedad de la Información y las empresas

Análisis de resultados

**Informazioaren Gizartea eta enpresak**  
La Sociedad de la Información y las empresas

---

# ÍNDICE

# AURKIBIDEA

Pág/Or.

## PARTE II: LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN Y LAS EMPRESAS

1. Introducción	3
2. Equipamientos TIC en las empresas de la C.A. de Euskadi	3
3. Tipos de acceso a la red	11
4. Uso de Internet	12
5. Empresas con sitio web en Internet	13
6. Comercio electrónico	18
7. Obstáculos al comercio electrónico	25
8. Seguridad informática	25
9. Comparación con otros países	27
10. Notas metodológicas.	32
10.1. Ficha metodológica	32
10.2. Conceptos y definiciones	36

## II ZATIA: INFORMAZIOAREN GIZARTEA ETA ENPRESAK

1. Sarrera
2. Informazio- eta komunikazio-hornikuntzak Euskal AEko enpresetan
3. Sarerako sarbide-motak
4. Interneten erabilera
5. Interneten web gunea duten enpresak
6. Merkataritza elektronikoa
7. Merkataritza elektronikorako eragozpenak
8. Segurtasun informatikoa
9. Beste herrialdeetako datuak
10. Metodologia-oharrak.
10.1. Metodologia-fitxa
10.2. Kontzeptuak eta definizioak

## 1. Introducción

La presente edición de la Encuesta sobre la Sociedad de la Información en empresas (ESI empresas), elaborada por Eustat, constata como, de nuevo, se producen importantes crecimientos en el equipamiento de tecnologías de la información y de la comunicación en las empresas de la C.A. de Euskadi al comienzo del año 2005, reactivándose, por tanto, estos crecimientos en tecnologías de la información tras un año anterior mucho más moderado.

Prácticamente todos los incrementos obtenidos en equipamientos TIC -Tecnologías de la Información y de la Comunicación- por las empresas vascas en 2005 se duplican, recuperando las tasas de crecimiento que se obtenían con anterioridad al año 2004.

Por otra parte, el porcentaje de empleados que usan estas tecnologías también se incrementa de manera importante, alcanzando en todos los casos esta utilización a más del 40% del personal.

Esta quinta edición de la Encuesta sobre la Sociedad de la Información (ESI empresas), realizada en el primer trimestre de 2005, va dirigida a empresas vascas de cualquier sector de actividad, salvo el primario, y se propone conocer de qué equipamientos disponen y qué utilización hacen estas empresas de las tecnologías de la información y de las comunicaciones (TIC), qué tipo de acceso y qué uso hacen de Internet y si tienen presencia en la red mediante página Web.

También, se analiza la importancia y la utilización que hacen del comercio electrónico, así como su distribución geográfica, los obstáculos que encuentran para un mayor desarrollo del mismo y, por último, de qué medidas disponen para su seguridad informática.

Los datos mostrados están basados en una respuesta de 7.500 establecimientos ubicados en la C.A de Euskadi.

A continuación, y siguiendo el orden establecido en el cuestionario utilizado para la recopilación de los datos de la Encuesta sobre la Sociedad de la información en empresas, se analiza la información obtenida.

## 2. Equipamientos TIC y su utilización en las empresas de la C.A. de Euskadi

En este capítulo se analiza el grado de penetración de las tecnologías de la información y de las comunicaciones (TIC) en las empresas de la C.A. de Euskadi y, más concretamente, el grado de equipamiento alcanzado en esta materia.

## 1. Sarrera

Informazioaren Gizartea enpresetan aztertzen duen Eustaten Inkestak (IGI-enpresak) beste bizkorraldi bat antzeman du, aurtengoan, enpresetako informazio eta komunikazio teknologietan, aurreko urtea askoz lasaiagoa izan bazen ere 2005aren hasieran berriz hasi baita Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen hornikuntza mota horretako teknologien alorrean.

2005ean IKTak (Informazio eta Komunikazio Teknologia) hazi diren euskal enpresen kasuan hornikuntza ia bikoiztu egin da, 2004aren aurreko hazkuntza tasara itzultzeraino.

Askoz handiagoa da, halaber, teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen portzentajea, betiere enplegatuen %40tik gorakoa.

Informazioaren Gizarteari buruzko bosgarren Inkesta hau (IGI-enpresak) 2005eko lehen hiruhilekoan egin zen, lehenean ez beste sektoretan diharduten euskal enpresetan, jakin nahi baitzen zenbateraino dauden informazio eta komunikazio teknologiez (IKT) hornituta eta zertarako erabiltzen dituzten, nola dauden lotuta Interneti, zein helbururekin eta web orririk ote daukaten.

Aztertu zen, orobat, zein neurritan eta nola baliatzen diren merkataritza elektronikoaz, haren hedapen geografikoa, oztoporik ote duten merkataritza elektronikoa garatzeko eta, azkenik, nolako neurriak dituzten segurtasun informatikoa bermatzeko.

Inkestari Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako 7.500 establezimenduk erantzun zioten.

Jarraian ikusiko dugu zer dioen Inkestak Informazioaren Gizarteak enpresetan duen islaz, eta horren inguruko datuak galdetegian ageri diren hurrenkera berean miatuko ditugu.

## 2. IKT-ak eta haien erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan

Atal honetan ikusiko da zenbateraino dauden finkaturik informazio eta komunikazio teknologia (IKT) Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan eta, zehazki, nola hornitu diren bertako enpresak horrelako teknologiez.


En el primer gráfico se muestra, para cada una de las diferentes tecnologías de la información y la comunicación, el porcentaje de establecimientos que están equipados con cada una de ellas. También, según cuál sea su tamaño de empleo, se puede observar grandes diferencias en los equipamientos que poseen, dándose un porcentaje de implantación muy superior en los establecimientos de 10 o más empleados de la Comunidad Autónoma de Euskadi que en los establecimientos más pequeños.

Lehen grafikoak adierazten digu, ehunekoetan, zenbat enpresak duten informazio eta komunikazio teknologietako bakoitza. Erabilera tasari erreparatuta, alde nabarmena dago hornikuntza mailan, Euskal Autonomia Erkidegoan teknologia hauek askoz ohikoagoak baitira 10 langile edo gehiagoko enpresetan txikiagoetan baino.

Establecimientos por equipamientos TIC y estrato empleo en 2005. (%)

Enpresak, IKTen hornikuntzaren eta langile kopuruaren arabera, 2005 (%).

1



Así, observando una a una estas tecnologías, se ve que prácticamente la totalidad de los establecimientos de la C.A. de Euskadi con 10 o más empleados (97,2%), disponen de ordenador para el desarrollo de su actividad. Este alto porcentaje, sin embargo, desciende hasta el 64,5% si se toma como referencia al conjunto de los establecimientos. Hay que tener en cuenta que, en este último caso, se incluyen las empresas cuya titularidad es la persona física o los denominados autónomos, donde, en general, la inversión destinada a este tipo de tecnologías es muy inferior.

Izan ere, teknologia bakoitzak euskal enpresetan duen hedapena aztertutik, 10 langile edo gehiagokoen artean ia gehienek dute ordenagailu bat beren zereginetarako, baina portzentaje hori, altu samarra, %64,5era jaisten da enpresa guztiak kontuan hartuz gero, ez baita ahaztu behar multzo horren barruan daukela bai titular gisa pertsona fisikoa duten enpresak baita beregaineko langileak ere, eta batzuen zein besteen artean oso txikia da mota honetako teknologietara bideratzen den inbertsioa.

Si se comparan los resultados obtenidos este año con los datos del año anterior, en el caso del ordenador personal se aprecia que, mientras los establecimientos con 10 o más empleados parecen haber tocado techo en lo que respecta a su implantación, pues la diferencia es de 1 punto porcentual (96,2% el año anterior por 97,2% éste), si se tienen en cuenta todos los establecimientos se produce un aumento este año de casi 5 puntos porcentuales (del 59,9% al 64,5%), en el número de establecimientos que incorporan ordenadores a su equipamiento. Este dato denota una cierta tendencia al aumento de este nivel de informatización básico en los estratos más bajos de nivel de empleo en el País Vasco.

Aurtengo emaitzak aurreko urtekoekin alderatuta, badirudi 10 langile edo gehiagoko establezimenduen kasuan ordenagailu pertsonala dutenen kopuruak goia jo duela, urte batetik besterako aldea bakarrik delako %1eko (96,2 iaz eta %97,2 aurtent), baina enpresa guztiak hartzen badira kontuan, ia %5 enpresa gehiagok handitu dute beren hornikuntza ordenagailu batekin (%59,9tik %64,5era). Euskadin, bada, oinarriko informatizazioak aurrera egin du langile gutxiko enpresetan.

Por su parte, el teléfono móvil es otro de los elementos tecnológicos con índices de penetración más elevados en los establecimientos de la C.A. de Euskadi. En concreto, el 71,7% de los establecimientos utilizan el móvil u otros servicios de comunicación personal. Este porcentaje se eleva al 86,4% si se toman en cuenta únicamente los establecimientos de 10 o más empleados.

A diferencia del año anterior, en este equipamiento se aprecia una clara reactivación en su evolución ya que, este año 2005, consigue un aumento de 8 y 6 puntos porcentuales en el total y en las empresas de 10 o más empleados respectivamente, mientras en el año 2004, independientemente del tamaño de empleo que tendrían, los porcentajes se mantenían prácticamente constantes, variando alrededor de una décima porcentual.

En un nivel superior se encuentran las tecnologías vinculadas a la red y que son, sin duda, las que se relacionan más directamente hoy en día con la denominada sociedad de la información: Internet y correo electrónico.

En la C.A. de Euskadi, el 48,0% de los establecimientos usan el correo electrónico y el 51,9% están conectados a Internet. Estableciendo de nuevo la divisoria en los establecimientos de 10 o más trabajadores, resulta que, en estos últimos, el 91,9% utilizan el correo electrónico y el 91,1% disponen de Internet, apreciándose en todos los casos un importante crecimiento respecto al año anterior.

Para apreciar con más claridad la diferencia en el nivel de equipamientos según el tamaño de los establecimientos, se pueden observar los estratos de empleo más extremos. Así, en los establecimientos más pequeños (hasta 2 empleados), a pesar de haber aumentado en más de 5 puntos porcentuales cada uno de sus equipamientos, siguen teniendo los niveles más bajos, oscilando entre el 38,3% de los que disponen de correo electrónico y el 70,0% de los que tienen teléfono móvil, pasando por el 55,3% que poseen ordenadores y el 42,7% con acceso a Internet. En contraposición, los establecimientos mayores (100 o más empleados) tienen una disponibilidad cercana al 100% en todos los equipamientos.

Por tanto, aunque en los establecimientos pequeños se va notando una progresiva incorporación a la red, aún están lejos de alcanzar las cifras obtenidas en los de mayor empleo.

En cuanto al uso que el personal empleado hace de estas tecnologías, se puede apreciar cómo, en este caso, el tamaño del establecimiento no influye tanto en los porcentajes de utilización que se obtienen.

Bestalde, teknologi tresnetatik eskuko telefonoa da gehien zabaldu dena, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen %71,7k eskukoa edo beste komunikazio zerbitzu pertsonalaren bat erabiltzen baitute. Datua %86,4ra igotzen da soilik erreparatzen badiegu 10 langile edo gehiagoko establezimenduei.

laz ez bezala, 2005ean tresna honek goraldi nabarmena izan du, 8 puntu irabazi baititu enpresa guztien artean, eta %6 10 langile edo gehiagokoetan. 2004an, ordea, portzentajeak ezer gutxi aldatu ziren (%0,1 inguru), enpresetako langile kopurua gorabehera.


Baina, gaur egun, informazioaren gizarteari lotuen ageri diren teknologiak sarearekin zerikusi dutenak dira, hau da, Internet eta posta elektronikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan lantokien %48 posta elektronikoz baliatzen dira, eta %51,9 Interneti konektaturik daude. Berriz ere langile kopurua bereizgarri gisa erabilita, 10 enplegatu edo gehiago dituzten enpresen artean %91,9k posta elektronikoa erabiltzen dute, eta %91,1ek Internet daukate. Bi kasuetan portzentajea nahikotxo hazi da aurreko urteaz geroztik.

Langile gehieneko eta gutxieneko lantokiak alderatzen baditugu, argiago ikusten da nola aldatzen den hornikuntza maila enpresen tamainaren arabera. Izan ere, txikienetan (2 langilerainokoak) tresna mota bakoitza %5 hazi da, baina hala eta guztiz ere, oraindik daude mailarik apalenean, eta tasak asko aldatzen dira teknologia motaren arabera: %38,3k posta elektronikoa dute, %70ek eskuko telefonoa, %55,3k ordenagailuak eta %42,7k Internetetikiko lotura. 100 langile edo gehiagoko enpresa handien kasuan, aldiz, ia guztiek daukate tresna horiek guztiak.

Hala, bada, nahiz eta gero eta enpresa txiki gehiagok sarearekiko lotura eduki, oraindik ere haien datuak urrun samar daude langile gehiagoko enpresetakoetatik.

Teknologia hauetaz baliatzen den langile kopurua begiratzen badugu, esan beharra dago enpresaren tamainak ez duela eraginik portzentajeetan.



Así, mientras en los establecimientos de menos de tres personas el 49,6% de los empleados utilizan el ordenador personal, en los establecimientos mayores, de cien o más empleados, este porcentaje supone el 58,3%, aumentando de forma similar su utilización respecto al año anterior (4 y 3 puntos porcentuales respectivamente). En el caso del correo electrónico, el personal que lo utiliza supone el 33,2% en los establecimientos más pequeños y el 48,4% en los establecimientos de cien o más empleados, habiendo crecido su utilización en ambos casos en algo más de 4 puntos porcentuales. Por último, en el uso de Internet, las diferencias todavía son más reducidas, pues si en los establecimientos de 0 a 2 empleados el porcentaje es del 37,5%, en los establecimientos más grandes se llega al 39,9%.

Esto puede ocurrir porque, mientras en los grandes establecimientos sólo una parte de los empleados, normalmente los de oficina, tienen acceso a estos equipamientos, en los establecimientos pequeños el trabajo no está tan diferenciado, teniendo que hacer cada persona un poco de todo.

Por tanto, aunque los establecimientos grandes tienen claramente un mayor equipamiento, el porcentaje de personal que hace uso de estas tecnologías es bastante similar y no depende tanto del tamaño de la empresa.

Por otra parte, si se observan las diferentes actividades que desarrollan las empresas, se pueden ver cuáles son los sectores más dinámicos en la incorporación de las TIC.

Así, se ve claramente en el gráfico cómo, en la Comunidad Autónoma de Euskadi, el sector industrial tiene una mayor participación en la incorporación de estas tecnologías a sus establecimientos que en los sectores de construcción y de servicios.


Hiru pertsonatik beherako establezimenduetan, bada, langileen %49,6k ordenagailu pertsonala erabiltzen dute, eta lantoki handietan, ehun enplegatu edo gehiagokoetan, portzentajea %58,3koa da, eta multzo batekoetan zein bestekoetan erabilera antzera hazi da aurreko urtetik (%4 eta %3 hurrenez hurren). Bestetik, enpresa txikienetan langileen %33,2k erabiltzen dute posta elektronikoa, eta %48,4k ehun enplegatu edo gehiagokoetan, eta bi kasuetan erabilera %4tik gora igo da. Azkenik, Interneti dagokionez, aldea estuagoa da, 0-2 langile bitarteko establezimenduetan portzentajea %37,5koa baita, eta handiagoetan %39,9koa.

Hala da, beharbada, lantoki handietan soilik erabiltzen dituztelako honelako tresnak enplegatu batzuek, gehienetan bulegoetakoeak, baina enpresa txikietan, ordea, lana ez dago horren sailkatuta, eta hein batean, pertsona guztiek denetarik egiten dute.

Hortaz, enpresa handiak hornituago dauden arren teknologia hauek erabiltzen dituztenen portzentajea ez da asko aldutzen enpresa txikiagoetako datuetatik, beraz, lantokiaren tamaina ez da erabakigarria.

Bestalde, enpresak jardueraren arabera bereiziz gero agerian geratzen da zein diren sektorerik bizkorrenak IKTak eskuratzeko orduan.

Illo horretatik, grafikoak argi adierazten digu Euskal Autonomia Erkidegoan industri sektoreko enpresek erakuntzakoek edo zerbitzuetakoek baino neurri handiagoan txertatzen dituela teknologia hauek.



Entre los sectores que más contribuyen a alcanzar estos porcentajes de equipamientos TIC, destacan la "Industria química" y el sector de "Papel, edición y artes gráfica" en Industria y "Administración pública" y "Banca y seguros" en Servicios.

Sin embargo, y en sentido contrario, también hay actividades que por sus propias características no parecen adaptarse bien a estas nuevas necesidades tecnológicas. Se pueden destacar en este sentido los sectores de "Hostelería", de "Transporte" y de "Servicios personales" dentro del sector Servicios, así como "Construcción" e incluso "Textil y confección" en la Industria. En estas actividades, una de sus características es el pequeño tamaño de la mayoría de sus establecimientos, lo que no ayuda a la incorporación de tecnologías como Internet o incluso de ordenadores personales a sus locales.


También por sectores de actividad, pero ahora haciendo el análisis teniendo en cuenta el personal ocupado, se observa cómo, en este caso, son los trabajadores del sector servicios los que claramente tienen un mayor acceso a las tecnologías de la información y comunicación, independientemente del tamaño de empleo que se observe.

IKTen hornikuntza gehien hazi den sektoreetan aipatzekoak dira, Industrian, "Industria kimikoa" eta "Papergintza, argitalpenak eta arte grafikoak, eta Zerbitzuetan "Administrazio publikoak" eta "Bankuak eta Aseguruak".

Baina era berean, zenbait jarduera kostata moldatzen dira, beren ezaugarriengatik, teknologiek orain planteatzen dituzten beharretara. Zerbitzuen sektorean, adibidez, hala gertatzen da "Ostalaritzan", "Garraioan" eta "Zerbitzu Pertsonaletan", eta beste horrenbeste Industriako "Eraikuntzan" eta are "Ehungintza eta Jantzigintza" ere. Alor horietan diharduten enpresa gehienak txikiak dira, eta hori ez da, hain zuzen ere, lagungarri bat Internetez eta beste teknologia batzuez hornitzeko, ezta -batzuetan- beren lokaletan ordenagailu pertsonala jartzeko ere.

Jarduera sektoreen azterketa hau langileen kopurua ere kontuan harturik egiten badugu, argi ikusiko dugu zerbitzuetako langileek besteek baino eskuragarriago dauzkatela informazio eta komunikazio teknologiak, enpresa zer tamainatakoa den ere.





Así, en el sector servicios, el ordenador personal lo emplean el 64,4% de sus trabajadores, mientras que en el caso de la industria o de la construcción lo utilizan el 41,7% y el 38,8% respectivamente. Al correo electrónico, por su parte, tiene acceso el 50,1% del personal de servicios mientras que en industria o construcción disponen el 31,9% y el 27,4% respectivamente. Por último, también en el uso de Internet hay una fuerte desproporción entre el 51,1% del personal que lo emplea en servicios y el 28,2% que están conectados en industria o el 31,2% en construcción.

Según lo observado, el sector más dinámico de la economía, en cuanto a disponer de equipamientos TIC, será diferente según cuál sea la forma de analizar los datos obtenidos. El sector de la industria destaca claramente sobre los demás sectores en la proporción de establecimientos que disponen de estas tecnologías, pero, si lo que se tiene en cuenta es el porcentaje de empleados que tienen acceso a estos equipamientos, el que sobresale es el sector servicios.

Esta diferenciación entre sectores de actividad se puede deber a que, si bien en la industria los establecimientos al ser de mayor tamaño están mejor equipados, sin embargo una parte importante de su personal se dedica a tareas de producción, no teniendo acceso a estas tecnologías. Por el contrario, en el sector servicios, aunque los establecimientos en general son más pequeños, la mayoría del personal pertenece a administración o atención al público, estando en oficina, que es donde mayor uso se hace de estos equipamientos, y no en talleres.

También, es importante reseñar el papel que tiene la Administración Pública en el desarrollo de la Sociedad de la Información. Desde la Administración Pública se ha apostado

Zerbitzuen sektorean %64,4 langilek erabiltzen dute ordenagailua, eta industrian eta eraikuntzan, ordea, %41,7k eta %38,8k hurrenez hurren. Posta elektronikoa erabiltzaileen portzentajea %50,1ekoa da zerbitzuetan, baina industrian %31,9ra jaisten da, eta eraikuntzan %27,4raino. Internetera joz, horretan ere handi samarra da sektoreen arteko aldea, zerbitzuetan langileen %51,1ek erabiltzen dutelako, eta beste bietan soilik %28,2k (industria) eta %31,2k (eraikuntza).

Esanak esan, IKTetarako joera biziena sektore batetik bestera aldatzen da, zein daturi erreparatzen diogun, hau da, mota honetako teknologia dauzkaten enpresen portzentajea begiratzan badugu, industria da ondoen hornitua, baina tresnak erabil ditzaketan langileen proportzioa irizpide hartuz gero, zerbitzuak dira sektore nagusia.

Gorabehera horien zergatia argitzeko, esan liteke industriako enpresek, handiagoak direnez, hornikuntza hobea dutela, baina beren langile asko ez dira horrelako teknologiez baliatzen, ekoizpen-lanetan jarduten dutelako. Zerbitzuetan, berriz, enpresak txikiagoak izaten diren arren enplegatu gehienek bulegoetan lan egiten dute, administrazioan edo jendaurrean ari direlako, eta zeregin horietan tailerrean baino maizago erabili behar izaten dira mota honetako tresnak.

Aipatzekoa da, halaber, Administrazio Publikoek Informazioaren Gizartearen garapenean duten garrantzia, Administrazioak argi agertu baitira teknologia berrien alde, beren lantokiak ugari hor-

fuertemente en favor de las nuevas tecnologías, incorporándolas masivamente a sus centros de trabajo. Así, el uso de ordenadores personales en la Administración Pública llega prácticamente al 100% de los organismos públicos y la utilización del correo electrónico y de la red se da en más de un 90% de los centros de la Administración Pública vasca.

En cuanto a la distribución geográfica, según cuál sea el equipamiento TIC elegido variará el Territorio Histórico mejor equipado, aunque siempre estarán los resultados obtenidos muy próximos entre sí. Los establecimientos de Álava disponen de ordenador personal y teléfono móvil con más frecuencia que los otros dos territorios, mientras que los de Bizkaia destacan por su equipamiento en correo electrónico y Guipúzcoa por tener un mayor porcentaje de empresas con conexión a Internet. En cuanto a disponer de página Web, los tres Territorios obtienen porcentajes muy similares.


Horren adierazle, Euskal Administrazio Publikoan ordenagailu pertsonalak ia erakunde publikoen %100ean erabiltzen dira, eta posta elektronikoa eta sarea zentroetako %90 baino gehiagotan.

Hedapen geografikoaren aldetik, zein IKT tresnari erreparatu, Lurralde Historiko bat edo bestea izango da ondoen hornitua, baina oro har, emaitzak oso antzerakoak dira hiruren artean. Araban beste bi herrialdeetan baino altuagoa da ordenagailu pertsonala eta eskuko telefonoa dituzten enpresen portzentajea, baina posta elektronikoa duten enpresak ohikoagoak dira Bizkaian, eta Internetera lotutakoak Gipuzkoan. Herrialdeen arteko aldea oso txikia da, berriz, web orria duten enpresen portzentajeak alderatuta.

### Establecimientos por equipamientos TIC y Territorio Histórico en 2005. (%)

### Establezimenduak, IKT hornikuntzen arabera, lurraldeka, 2005. (%)

5



Respecto a los datos obtenidos el año anterior, en este año 2005 los porcentajes obtenidos en equipamientos TIC en los tres Territorios de la C. A. de Euskadi se han acercado mucho entre sí, siendo ahora las diferencias interterritoriales mucho más reducidas. Esto es debido a que Álava, que destacaba anteriormente en todos los equipamientos estudiados, ha obtenido unos crecimientos mucho más moderados que Bizkaia y Gipuzkoa.

Además, existen otras tecnologías más especializadas, como redes locales, Intranet, Extranet, etc., con unos niveles de incorporación a los establecimientos más reducidos. De red local o

Herrialde Historiko bakoitzeko IKT-en hornikuntzaren berri ematen duten datuak nabarmen berdindu dira aurreko urtetik 2005era. Orain, bada, askoz tarte murriztagoa dago herrialde batetik bestera, zeren Arabak, lehenago asko hazia hornigai gutzietan, 2005ean gutxi egin baitu gora Bizkaia eta Gipuzkoaren aldean.

Gainera, teknologia espezializatuak (toki sareak, intranet, extranet...) bakanago agertzen dira oraindik enpresetan. Izan ere, enpresen %27,6k toki sarea edo sare hedatua duten arren,

extendida disponen el 27,6% de los establecimientos, mientras que la utilización de otras redes basadas en el protocolo de Internet, como Intranet o Extranet, alcanzan respectivamente el 13,6% y el 5,5% de los establecimientos. En cuanto a otros usos de las tecnologías de la información, como pueden ser la Transferencia Electrónica de Fondos o el Intercambio Electrónico de Datos (EDI), su utilización, por parte de los establecimientos, es del 30,6% y del 7,7% respectivamente.

Estas tecnologías, por sus propias características, van unidas a organizaciones de un cierto tamaño, como se puede observar al ver cómo escasamente el 5,9% y el 2,4% de los establecimientos de 0 a 2 empleados tienen Intranet o Extranet respectivamente. Sin embargo, en los establecimientos de más de 100 empleados, estas mismas tecnologías alcanzan unos porcentajes que se elevan hasta el 84,4% y el 47,4% respectivamente, lo que confirma la fuerte correlación existente entre el tamaño del establecimiento y el disponer o no de estas redes o protocolos.

Para finalizar con este punto, se puede observar la continua evolución que ha tenido la implantación de estas tecnologías en las empresas vascas durante los cinco últimos años. Así, y a pesar de que en 2004 se produjo una ligera desaceleración en estos equipamientos, en 2005 se vuelve a reactivar de forma importante.

Interneteko protokoloan oinarritutako beste sare batzuk, adibidez intranet, bakarrik ageri da lantokien %13,6an, eta extranet %5,5ean. Era berean, informazio teknologien bestelako erabilerei dagokienez, enpresetako %30,6k baino ez dituzte Funtsen Transferentzia Elektronikoak egiten, eta %7,7 soilik baliatzen dira Datuen Elkartruke Elektronikoaz (EDI).


Beren ezaugarriak direla eta, mota horretako teknologiak arruntak dira, batez ere, gutxieneko tamaina batera iristen diren enpresetan, eta horren frogara, 0-2 langile bitarteko enpresetatik %5,9k baino ez dute intranet, eta %2,4k –bestarik ez- extranet. Ehun enplegatutik gorako enpresetan, ordea, bi teknologia horien portzentajea %84,4 eta %47,4koa da hurrenez hurren, beraz, zenbat eta handiagoa izan enpresa, hainbat eta handiagoa ere horrelako sareak edo protokoloak edukitzeko probabilitatea.

Atal hau amaitzeko, ohartzekoa da azken bost urteetan teknologia hauek etengabe zabaldu direla euskal enpresetara, 2004an polikiago hazi baziren ere 2005ean berriz bizkortu baita haien hedapena.

Evolución en los establecimientos vascos de los equipamientos TIC 2001-2005. (%)

6.

IKT hornikuntzen bilakaera Euskal Aeko establezimenduetan, 2001-2005. (%)



### 3. Tipos de acceso a la red

Algo más de la mitad de las empresas vascas, concretamente el 51,9%, tienen acceso a Internet, tras haber experimentado en 2005 un crecimiento de 6 puntos porcentuales desde el 45,9% conseguido el año anterior. Si se consideran sólo los establecimientos de diez o más empleados, este porcentaje alcanza la cifra del 91,1%, al haberse incrementado en 3 puntos porcentuales el porcentaje obtenido en 2004.

En el grado de implantación de las tecnologías de la sociedad de la información, también es importante saber el tipo de conexión que se emplea para incorporarse a la red. Esto es debido a que, para entrar a la información disponible en Internet, es fundamental tanto el grado de desarrollo de las redes de acceso como la forma en que se accede a la red.

### 3. Sarerako sarbide motak


Euskal enpresen erdiek baino gehixeagok (%51,9) Interneterako lotura dute, 2004ko portzentajea (%45,9) 6 puntu hazi baitzen 2005ean. Hamar langile edo gehiagoko enpresetan datu hori %91,1era iristen da, 2004ko portzentajea hiru puntu igo zen eta.

Dena den, informazioaren gizartea ezaugarritzen duten teknologien zabalpena aztertzean kontuan izan behar da nolako sarbide mota erabiltzen den sarera jotzeko, Interneteko informazioa eskuratzeko oinarritzkoa baita zenbateraino dauden garatuta sarbide sareak eta nola sartzen den sarean.

Establecimientos con acceso a Internet por estrato de empleo y año. (%)

Interneteko sarbidea duten establezimenduak, enplegu-geruzaren eta urtearen arabera. (%)

7.



Así, por segundo año consecutivo, continúan siendo las líneas ADSL la vía principal por la que acceden a Internet las empresas vascas. En concreto, un 61,7% de las empresas que entran a la red lo hacen por esta vía, porcentaje que, respecto al año anterior, aumenta en 8,4 puntos porcentuales desde el 53,3% que representaban. A continuación, y a una distancia cada vez mayor, la segunda vía utilizada sería a través de líneas telefónicas ordinarias con módem, que suponen el 38,0% de las empresas que se conectan a Internet, tras haber perdido 4 puntos porcentuales respecto al año anterior. Las líneas RDSI, por su parte, también sufren un retroceso de 1,2 puntos porcentuales, representando actualmente al 10,4% del total de establecimientos conectados.

Bi urtez lerroan, ADSL lineak Interneterako sarbide nagusia izan dira euskal enpresetan. Izan ere, Internetera sartzen diren enpresetatik, %61,7k bide horretaz baliaturik egiten dute, beraz, aurreko urteko portzentajea (%53,3) 8,4 puntu hazi da. Bigarren sarbide erabiliena –alde handiz baina– telefono linea modemdunak dira, Internetera era horretan sartzen diren enpresak (%38,0) iaz baino %4 gutxiago dira eta. RDSI motako lineak ere %1,2 gutxitu dira, egun bakarrik erabiltzen baitituzte konektatutako enpresen %10,4k.

También, hay otro tipo de conexiones, normalmente de banda ancha y limitadas a las empresas más grandes, que suponen el 9,1% del total de establecimientos.


Si se tiene en cuenta el tamaño del establecimiento, la desproporción a favor del acceso a la red a través de las líneas ADSL es todavía mayor, suponiendo en los establecimientos de 10 o más empleados un porcentaje del 77,5%. A continuación, y para este tamaño de establecimiento, figuran las líneas telefónicas ordinarias con módem, con el 19,8% de los establecimientos. Por último, las líneas RDSI y Otras tendrían unos porcentajes de utilización del 14,4% y el 15,4% respectivamente.

Bestelako konexioak, gehienetan banda zabalekoak, batez ere enpresa handienetan kokatzen dira, hortaz, establezimenduen %9,1ean baino ez.

Hamar langile edo gehiagoko enpresen kasuan ADSL lineek are pisu handiagoa dute, sarerako sarbidea baitira tamaina horretako lantokien %77,5ean. Enpresa multzo berean bigarren sarbidea telefono linea modemdunak dira, %19,8k erabiliak, eta azkenik, RDSI lineei eta bestelakoei %14,4 eta %15,4ko erabilera tasak dagozkie hurrenez hurren.

Establecimientos con acceso a Internet por tipo de conexión, estrato de empleo y año. (%)

8. Interneteko sarbidea duten establezimenduak, konexio-motaren, enplegu-geruzaren eta urtearen arabera. (%)



Por tanto, y como se puede apreciar en el gráfico de acceso a Internet por tipo de conexión, el módem, que en 2002 y 2003 era la forma principal de acceso a la red para el total de los establecimientos, ha ido perdiendo terreno de forma muy acusada a favor del empleo de las líneas ADSL.


#### 4. Uso de Internet

Entre las preguntas que se solicitan en la encuesta a los establecimientos con acceso a la red, se encuentra para qué se usa y qué es lo que más interesa de Internet. Así, dependiendo de la perspectiva empresarial o comercial que se le quiera dar, este interés puede ser muy diferente.

Interneteko sarbideak irudikatzen dituen grafikoak erakusten digunez, modemak, 2002 eta 2003an sarerako sarbide nagusia izanak, atzera egin du neurri handi batean, eta ADSL lineak zabalduz joan dira haren ordeaz.

#### 4. Interneten erabilera

Sarerako sarbidea duten enpresei inkestan galdetu zitzaizen, besteak beste, zertarako erabiltzen duten Internet eta zergatik gertatzen zaien interesgarri, enpresak zer eta zertarako bilatzen duen sarea, oso desberdinak izan daitezke-eta haren interesaren arrazoiak.



En los usos principales que las empresas hacen de sus equipos en Internet, destaca en primer lugar la búsqueda documental, que lo realizan más del 90% (el 91,7%) de las empresas que tienen acceso a la red, independientemente del sector de actividad o del estrato de empleo en el que estén ubicados.

A continuación, figura la obtención de información bancaria o financiera y la realización de transacciones con entidades financieras, con un 61,5% y un 55,4% respectivamente de establecimientos con Internet.

También se puede destacar, con un 39,5%, las que utilizan Internet para su comunicación con las Administraciones Públicas y poder así realizar, mediante esta vía, algunos trámites administrativos.

Otros usos importantes serían la utilización de Internet para acceder a las bases de datos de proveedores-clientes con un 33,9% y recibir o bajarse de la red productos digitales como software, etc. con un 33,4%.

Además de estos usos, que son los que mayor frecuencia tienen, hay que hacer referencia a otras actividades que, aunque se emplean de forma menos habitual, también las realizan las empresas con conexión a Internet. Estas otras actividades serían: acceso a cursos o formación del personal (21,1%), análisis de competidores (19,2%), compras de bienes y servicios (13,1%), obtención de servicios post-venta (10,5%), reclutamiento de personal (8,0%) y ventas de bienes y servicios (3,2%).

##### 5. Empresas con sitio web en Internet

Otro indicador importante, a la hora de analizar la posición que ocupan las empresas en el uso de las nuevas tecnologías, es

Enpresek Internet erabiltzeko dauzkaten arrazoietatik, sarrien aipatzen da dokumentuak bilatzea, hala egiten baitute sarerako sarbidea dutenen %90 baino gehiagok (%91,7), enpresaren jarduera tamaina gorabehera.

Bigarren agertzen da banku- edo finantza-informazioa eskuratzea eta finantza erakundeekiko transakzioak egitea, enpresa sarbidedunen %61,5ek lehen motako eragiketak egiten baitituzte Internetez, eta %55,4k bigarren motakoak ere bai.

Azpimarratzekoa da, halaber, enpresen %39,5 Internetez baliatzen direla Administrazio Publikoekin harremanetan jartzeko eta zenbait administrazio-izapide ere horrela egiteko.

Bestetik, Internet maiz erabiltzen da hornitzaileen eta bezeroen datu-baseetara jotzeko (%33,9) eta softwarea edo bestelako produktu digitalak sarearen bidez jasotzeko edo jaisteko (%33,4).

Aipatu ditugun erabilerak sarrienak dira, baina ez bakarrik, sarerako lotura duten enpresak honako hauetarako ere baliatzen direlako Internetez: ikastaroak edo langileentzako prestakuntza saioak (%21,1), lehiakideen azterketa (%19,2), ondasunak eta zerbitzuak erostea (%13,1), saldu osteko zerbitzuak lortzea (%10,5), langileak bilatzea (%0,8) eta ondasunak eta zerbitzuak saltzea (%3,2).

##### 5. Interneten web gunea duten enpresak

Teknologia berrien erabilera enpresetan neurtzean, oso lagungarria da jakitea enpresa horiek web orririk duten Interneten edo

saber si éstas tienen presencia en Internet o no, a través de una página Web, ya sea mediante un servidor propio o alojada en un servidor ajeno.

Así, el 19,8% del total de establecimientos disponía de página Web a comienzos de 2005, ya sea propia (11,7%) o alojada en otro servidor (8,1%).


ez, web gune hori berezko zerbitzari batean nahiz besteren zerbitzari batean sartuta eduki ere.

Datuen arabera, 2005aren hasieran establezimenduen %19,8k zeukaten web orri bat, berea (%11,7) edo beste zerbitzari batean kokatua (%8,1).

### Establecimientos con presencia en Internet por rama de actividad y estrato de empleo y año. (%)

### Interneten dauden establezimenduak, jardueradarraren eta enplegu-geruzaren arabera, urteka. (%)

10.



Como se aprecia en el gráfico adjunto, los porcentajes que se obtienen son muy diferentes si varía el tamaño del establecimiento. Así, la presencia en la red mediante página Web se incrementa, desde el citado 19,8% para el total de los establecimientos, hasta el 63,7% para los establecimientos de 10 o más empleados, tras aumentar 3,4 y 7,9 puntos porcentuales respectivamente el porcentaje obtenido respecto al año anterior.


Por tanto, también varía, en las empresas de más de 9 empleados, la distribución de las páginas Web entre propia o alojada en otro servidor, siendo ahora de un 36,6% y un 27,1% respectivamente. Además, se puede resaltar que ya son el 87,2% los establecimientos con 100 o más empleados que tienen página Web.

Por sectores de actividad, en industria se alcanza el 26,4% del total de establecimientos con página Web, mientras que en el sector servicios supone el 20,8% y, a continuación, aunque algo alejado, está el sector construcción con un 9,5%. Este orden varía si se tiene en cuenta el tamaño del establecimiento ya que, en los de 10 o más empleados, es servicios con un 72,1% el sector que ocupa el primer lugar, seguido por industria con un 58,0% y, por último, el sector construcción, con un 34,8%.

Ondoko grafikoan ageri denez, portzentajeak oso desberdinak dira enpresaren tamaina aldatuz gero. Izan ere, sarean web orri bat daukatenen portzentajea (aipatutako %19,8, hots, aurreko urtean baino %3,4 gehiago) %63,7ra iristen da 10 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, eta gainera, azken hauek %7,9 hazi dira aurreko urtetik hona.

Hartara, 9 langiletik gorako enpresetan datu horrekin batera aldatzen dira, halaber, web orria berea dutenen portzentajea eta besteren zerbitzarietan dutenena (%36,6 eta %27,1 hurrenez hurren). Azpimarratzekoa da, bestetik, 100 langile edo gehiagoko enpresen %87,2k web orria daukatela dagoeneko.

Sektoreka azterturik, web orria duten enpresen %26,4 industri alorrekoak dira, %20,8 zerbitzuetakoak eta, horien ondoren baina atzera samar, %9,5ek eraikuntzan dihardute. Ordena, haatik, desberdina da lantokiaren tamainari erreparatzen bazaio, 10 langile edo gehiagoko enpresak daudelako lehen tokian (%72,1), industriakoak bigarren (%50,8) eta, azkenik, eraikuntza sektorekoak (%34,8).



Por otra parte, durante los últimos años se puede observar cómo la creación de páginas Web en las empresas del País Vasco tienen unos crecimientos sostenidos, ligeramente por encima del 10% anual, tanto para el total de empresas como para los establecimientos de 10 o más empleados. Actualmente, más de la mitad de las páginas Web se han creado en el año 2001 o anteriores.

Otro dato importante que permite conocer la Encuesta sobre la Sociedad de la información en empresas es el idioma empleado por las empresas en sus páginas Web, ya que permite observar a qué grupo de usuarios van dirigidos sus mensajes según cuál sea el idioma que utilicen. Destaca claramente la utilización del castellano ya que, prácticamente, aparece en la totalidad de las páginas Web de los establecimientos de la C.A. de Euskadi, en el 97,6%. A continuación, es el euskera el idioma más empleado, pudiéndose encontrar en una de cada tres empresas con presencia en Internet, concretamente en el 33,6% de los casos. Seguidamente, figura el inglés como el tercer idioma más utilizado, al poderse acceder al 29,9% de las direcciones existentes. Por último, también hay un 15,4% de páginas Web de empresas vascas en que se pueden encontrar otros idiomas.

La utilización de estos idiomas también varía en función de la distribución geográfica y del sector de actividad al que pertenezcan las empresas. Así, a nivel de Territorio Histórico, es en Gipuzkoa donde se da claramente el mayor porcentaje de páginas Web en euskera, con un 42,9%, frente al 28,9% y al 26,7% de Bizkaia y Alava respectivamente. En castellano y en inglés, sin embargo, el porcentaje de utilización que se da en los tres territorios es muy similar.

Ohartzekoa da, orobat, azken urteotan Euskadiko enpresen web orriak erritmo jarraituan sortu direla, urtean haien kopurua %10etik gora hazi baita, bai enpresa guztiak kontuan hartuta bai 10 langile edo gehiagokoen artean ere. Oraingo web orrietatik, erdiak baino gehiago 2001ean edo aurreko urteetan sortuak dira.

Informazioaren Gizartea enpresetan aztertzeko Inkestak beste datu interesgarri bat ematen digu, enpresek beren erabiltzen duten hizkuntza, alegia, eta horri esker ondoriozta daiteke zein erabiltzaile multzorengana zuzentzen dituen delako enpresa horrek bere mezuak. Hizkuntza nagusia, bistan dago, gaztelania da, ia Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa guztien web orrietan ageri baita, zehazki %97,6an. Euskara, bigarren hizkuntza erabiliena, Interneten dauden hiru enpresatik batek (%33,6) dauka bere orrian, eta azkena, ingelesa, helbideen %29,9an agertzen da. Badaude beste hizkuntza batzuk ere euskal enpresen web orrietan, %15,4an hain zuzen ere.

Enpresaren kokapen geografikoak eta haren jarduera sektoreak eragina dute web orriko hizkuntza aukeratzean. Hala, bada, Lurralde Historikoetatik Gipuzkoa da web orri gehien dauzkana euskaraz (%42,9), Bizkaian eta Araban portzentajeak %28,9 eta %26,7koa baitira, hurrenez hurren. Gaztelaniak eta ingelesak, ordea, antzeko portzentajeak dituzte hiru herrialdeetako orrietan.



**INTERNETEN DAUDEN ESTABLEZIMENDUAK, ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA, LURRALDEA, JARDUERA-SEKTOREA ETA EMPLEGU-GERUZA KONTUTAN IZANIK, 2005. (%)**

ESTABLECIMIENTOS CON PRESENCIA EN INTERNET POR IDIOMA EMPLEADO, SEGÚN TERRITORIO HISTÓRICO, SECTOR DE ACTIVIDAD Y ESTRATO DE EMPLEO EN 2005 (%)

	<b>Euskara</b> Euskera	<b>Gaztelania</b> Castellano	<b>Ingelesa</b> Inglés	<b>Bestelakoak</b> Otros
<b>Lurralde-eremuak / Ámbitos Territoriales</b>				
<b>Euskal AE / C.A. de Euskadi</b>	33,6	97,6	29,9	15,4
<b>Araba / Álava</b>	26,7	96,7	32,3	13,9
<b>Bizkaia</b>	28,9	98,1	30,4	13,7
<b>Gipuzkoa</b>	42,9	97,1	28,2	18,3
<b>Jarduera-adarra / Rama de actividad</b>				
<b>Industria</b>	21,4	96,6	48,1	23,4
<b>Eraikuntza / Construcción</b>	24,3	100,0	12,0	5,1
<b>Zerbitzuak / Servicios</b>	36,0	97,5	28,6	15,0
<b>Enplegu-geruza / Estrato de empleo</b>				
<b>0etik 2ra / De 0 a 2</b>	32,6	96,9	25,8	14,7
<b>3tik 9ra / De 3 a 9</b>	32,0	97,8	25,8	11,3
<b>10etik 19ra / De 10 a 19</b>	30,4	98,2	32,5	17,4
<b>20tik 49ra / De 20 a 49</b>	44,7	98,5	48,0	27,6
<b>50tik 99ra / De 50 a 99</b>	41,0	98,9	49,8	26,4
<b>100 eta gehiagoak / De 100 y más</b>	42,1	96,1	62,4	27,4

Por sectores económicos, se puede reseñar cómo la industria, con un 48,1%, es la que más ha incorporado el inglés a sus páginas Web y la que menos, con un 21,4%, utiliza el euskera. En el sector servicios, por el contrario, al 36,0% de las direcciones se puede acceder en euskera y al 28,6% en inglés. El sector construcción, por su parte, aunque tiene menos establecimientos con página Web (9,5%), de ellos, el 24,3% utiliza el euskera y el 12,0% emplea el inglés. Otra característica a resaltar sería que, según aumenta el tamaño de los establecimientos también crece el abanico de idiomas ofertados en la red y el idioma inglés, en concreto, se va generalizando, hasta alcanzar al 62,4% de los establecimientos de 100 o más empleados.

Por último decir que, respecto al ejercicio anterior, los porcentajes de utilización de idiomas en las páginas Web apenas han sufrido modificaciones, siendo muy estables, por tanto, los datos obtenidos.

En este capítulo, también se pueden analizar las principales prestaciones y características que se encuentran en las páginas Web de las empresas.


Si disponer de un sitio Web es importante para poder catalogar y medir la incorporación de las nuevas tecnologías, no es menos importante analizar qué prestaciones o funciones ofrecen las empresas que han decidido asomarse a Internet por medio de una página propia. Así, estas posibilidades u opciones ofertadas van desde las funciones exclusivamente informativas, hasta las que permiten realizar las ventas y los pagos de las transacciones efectuadas.

Ekonomi jardueren arabera, ingelesa maizenik ageri den sektorea industria da, bertako web orrien %48,1ek txertatu baitute, eta era berean, industria da euskarazko orri gutxien daukana ere (%21,4). Zerbitzuetan, berriz, euskaraz helbideen %36ra irits daiteke, eta %28,6ra ingelesez. Eraikuntzan web orria duten enpresak urriagoak dira (%9,5), baina haietako %24,3k euskara erabiltzen dute, eta %12k ingelesa. Deigarria da, bestalde, enpresen tamaina hazi ahala hizkuntza gehiago erabiltzen dituztela sarean, eta ingelesari dagokionez, eremu zabala goa hartuz doa, 100 langile edo gehiagoko enpresen kasuan %62,4k sartu baitute beren web orrietan.

Aipatuko dugu, bukatzeko, aurreko urtetik hona ez dela ia aldaketarik izan web orrietako hizkuntzen aldetik, eta datuak, beraz, lehengo berak dira gutxi gorabehera.

Atal honetan aipatzeko modukoak dira, halaber, enpresek beren web orrietan eskaintzen dituzten zerbitzuak eta orri horien ezauzgarriak.

Teknologia berrien erabilera maila neurtzean oso lagungarria da enpresek web orria duten jakitea, eta hori bezain argigarria da nolako zerbitzuak eta aukerak eskaintzen dituzten, Interneten, beren web orria edukitzea erabaki duten enpresek. Denetarik aukerak daude, informazio hutsa ematen dutenetik saltzeko eta ordainketak egiteko aukera ere ematen duteneraino.



Las empresas pueden desarrollar, a través de sus páginas Web, múltiples actividades relacionadas con publicidad, marketing, compra y venta de bienes y servicios, etc. En definitiva, pueden realizar una serie de tareas, propiciadas por este nuevo canal, que podrían revolucionar la actividad comercial y empresarial.

